

**Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIAZTATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko ekainaren 23an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kultur elkarteei zein norbanakoei zuzendutako 2022ko dirulaguntzen onuradunen zerrenda onartzea.**

Alkate-udalburuaren 2022ko ekainaren 22ko proposamenak dio:

**Gaia:** Kultur elkarteei zein norbanakoei zuzendutako 2022ko dirulaguntzen onuradunen zerrenda onartzea.

2022ko ekainaren 20an egindako Kultura batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, Kultur Suspertzaileak, Eurne Soraluze Igoak, bere aktan jasotzen duenez.

**“2 Puntua. Sormen eta kultur programa dirulaguntzak: Onuradunen proposamena.**

*Herriko kultur elkarte zein norbanakoei 2022. urtearen barruan gauzatuko dituzten kultur programa zein sormen lanen eskaerak eta proiektuak aurkeztu ondoren, bakoitzaren balorazioa egin du Kultura Sailak.*

*Eskaitzaileek baldintza pleguetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute eta guztiek betetzen dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak.*

*Aurkezturiko proiektu artistikoen zein sormen proiektuen balorazioetan, batzordean aurkezturiko irizpideak ezarri zaizkie. Hauek guztiak Baldintza pleguetan jasotzen dira.*

*Jarraian aurkezturiko taula honetan biltzen dira batzordeari egin zaizkion dirulaguntza proposamenak:*

**Kultur programak eta proiektuak.**

ELKARTEA	Dirulaguntza	60%	40%
Irazan	3.404,9 €	2.042,9 €	1.361,9 €
Algaraz Ikuskizun Elkarte	2.703,9 €	1.622,3 €	1.081,5 €
Zizenkatzaileak	2.703,9 €	1.622,3 €	1.081,5 €
OMT	3.004,3 €	1.802,6 €	1.201,7 €
Nabarralde	2.904,1 €	1.742,5 €	1.161,7 €
Txinparta Bertso Eskola	3.404,9 €	2.042,9 €	1.361,9 €
Oñati Abesbatza	2.603,7 €	1.562,2 €	1.041,5 €
Lizargarate	4.706,7 €	2.824,0 €	1.882,7 €
Ilunpetan	3.104,4 €	1.862,7 €	1.241,8 €
OLR	2.203,1 €	1.321,9 €	881,3 €
OGA	9.613,7 €	5.768,2 €	3.845,5 €
Orkesta	2.703,9 €	1.622,3 €	1.081,5 €
Ganbara Kantu Eskola	9.113,0 €	5.467,8 €	3.645,2 €
Oñatz Dantza Taldea	9.313,3 €	5.588,0 €	3.725,3 €
Hots	8.512,2 €	5.107,3 €	3.404,9 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>70.000,0 €</b>	<b>42.000,0 €</b>	<b>28.000,0 €</b>

**Kultur arloko sorkuntza-lanerako dirulaguntzak**

<b>Eskatzailea</b>	<b>Proiektua</b>	<b>Dirulaguntza</b>	<b>60%</b>	<b>40%</b>
Leire Cortabarría Alonso	Liburuaren autoedizioa.	652,3 €	391,4 €	260,9 €
Felipe uriarte Camara	Narrazioa.	652,3 €	391,4 €	260,9 €
Andoni Campos Ugarte	Diska grabaketa eta argitalpena.	1.304,6 €	782,8 €	521,8 €
Inazio Irizar Etxeberria	Kafabera, antzezlan.	1.087,2 €	652,3 €	434,9 €
Karmelo Alberdi Onraita	Garateko bidean proiektua, kantu grabaketa.	869,7 €	521,8 €	347,9 €
Gure Bazterrak Kultur Elkarte	Irunberri	1.522,1 €	913,2 €	608,8 €
Ander Lizarralde Lizarralde	Zerke proiektua, aforismo bilduma, literatura.	869,7 €	521,8 €	347,9 €
Jesus Maria Ugarte Aranburu	Goribar-Kasablanka auzoa argazkitan, liburuaren edizioa eta diseinua.	1.087,2 €	652,3 €	434,9 €
Urko Egaña Caldero	Geure Mitologia, liburuaren edizioa eta diseinua.	1.087,2 €	652,3 €	434,9 €
Unai Lete Biain	Bideoklipa eta diska grabaketa.	1.087,2 €	652,3 €	434,9 €
Mirari Sagarzazu Sacristain	Kantakerixak,Oñatiko kantu zaharren kantu barrixak grabaketa eta argitalpena.	1.087,2 €	652,3 €	434,9 €
OGA	Musika grabaketa	1.304,6 €	782,8 €	521,8 €
Ion Fernandez De las Heras	Araotz Ikerketa Etnografikoa, liburua.	652,3 €	391,4 €	260,9 €
Ganbara Kantu Eskola	Gure Musika Sortuz diska eta argitalpena.	869,7 €	521,8 €	347,9 €
Mikel Zarketa Urmeneta	Sharow Estoner, diska grabaketa eta argitalpena.	869,7 €	521,8 €	347,9 €
Kepa Aranburua Aguirre	"El Imbecil ", laburmetraia	869,7 €	521,8 €	347,9 €
<b>Guztira</b>		<b>15.872,8 €</b>	<b>9.523,7 €</b>	<b>6.349,1 €</b>

Sormen lanen eskaeretan, **Iker Martínez de Zuazo Jaunak** ( 2345 Erregistro zenbakiarekin ) bere dirulaguntza eskaerari uko egiten dion eskaera bideratu zuen Erregistro Elektronikotik - ekainak 18, ostiralean-. Hau kontuan izanda, Sormen dirulaguntzen taula proposamena adierazle sistema aplikatuz egokitu da.

Honekin batera, onarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Hau horrela, dirulaguntzen ordainketa honela bideratzea:

- Onarpenarekin batera diruaren %60 emango zaie kultur eragile edo /eta norbanako bakoitzari.
- Egitasmoak burutu ondoren edo/eta argitalpenak eginak daudenean, jardueren memoria eta jardueren kostu ekonomikoa aurkeztu beharko dute azaroak 30a baino lehen.
- Jardueren likidazioa onartu ondoren eta ekitaldi guztiak burutu direla egiaztatutakoan, beharrezko dokumentazio guztia aurkezten bada eta gastu ekonomikoa dagokion gastu frogagarrien bidez justifikatzen bada, %40 ordainduko zaie.

Aurkezturiko eskaeren balorazio txostena gauzatu eta proposamena ebatzi ondoren, Kultura Batzordeak Organo Eskumendunari, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeari, aurkezturiko taula hauek onartzea eta dirulaguntzen ordainketa bideratzea proposatzen dio."

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

**30.2 artikulua:** “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazeko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitorzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatuzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

**34.3 artikulua:** “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3.

**Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Kultura Departamentuak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntzen 2022ko deialdia eta oinarriak, 2022ko apirilaren 21a, osteguna, GAO n (74 . Zenbakia) argitaratu ziren (BDNS (Identif.): 619655).

Azaldutakoagatik, Kultura Batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Kultura batzordeak egindako proposamenean zerrendatutako norbanako zein elkarteei diru-laguntzaren onuradun izaera berrestea , 2022ko diru-laguntzen deialdia ebatzea eta 86.000€ko gastua baimentzea, goian aipatutako xehetasunekin.

**Bigarrena.-** Onarpenarekin batera diru-laguntzaren %60 onartzea eta ordaintzea elkarte zein norbanako bakoitzari. Egitasmoak burutu ondoren edo/eta argitalpenak eginak daudenean, jardueren memoria eta jardueren kostu ekonomikoa aurkeztu beharko dute azaroak 30a baino lehen.

Jardueren likidazioa onartu ondoren eta ekitaldi guztiak burutu direla egiaztatutakoan, beharrezko dokumentazio guztia aurkezten bada eta gastu ekonomikoa dagokion gastu frogagarrien bidez justifikatzen bada, %40 ordainduko zaie.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**Laugarrena.-** Diru-laguntza hauen onuradunak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

**Bostgarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta kultura teknikariari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez Kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakunde Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**

**Alkatearen O.I.**

**IDAZKARIA**

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU42934345-512a-4f78-9b4e-1f3c42ade98e**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>**